

MERKATARIAK

ADELA GARTEIZ arropa dendea, AINHOA oinetakoak, AIZU aldizkariak, ALKAR jolasak eta kirolak, ALLUNTIZ burdindendea, AMILOTX liburua dendea, ANNE oinetakoak, ARES dastalekua, ARGIA optikea, ARGIBIDE elektrizididea, ARRIEN optikea, ARRONATEGI pinturak, ARTETXE argi dendea, ATXIKE ehiza eta arrantzea, BAKE EDER kafetegia, BARRIAZARRA musika dendea, BAREÑO jantzi dendea, BATZOKIA jatexea, BAZAR TXIKIA bazarra, BED´S koltxoiak, BEGO ETA NEREA lurindegia, BEREZI liburua dendea, BIDAGUREN gozotegia, BIKANA altzariak, BILBAO aseguroak, BOLINA jatexea, BONILLA argazki dendea, BRONCEARIUM estetika zentroa, DECO-REV dekorazinoa, DESMAYO SURF arropa dendea, DIONISIA arropa dendea, DOMINGEZ farmazia, DONIBANE albaitaritza, DUKA arropa dendea, DUSI lentzeria, EL CASERIO jatebxea, EGUREN optika dendea, EROSKI bidaiak, ETXABE kirol dendea, ETXEKO makailoak, EUSEBIO bitxi dendea, FERMIN zapata dendea, F-2 zapata dendea, GARAÓ konplementuak, GAUBEKA liburua dendea, GERNI GARDEN lorak eta animaliak, GERNIKA ortopedia, GERNIKA Zerraldegia, GLOSS arropa dendea, GOTZONE umeentzako dendea, GUREA altzari dendea, IBAIALDE tapiz dendea, ILARGI dekorazinoa, INTER SPORT EXTREME, IRAZABAL burdin dendea, IRUSKIETA bitxi dendea, IZAGA uleapaindegia, IZASKUN harategia, IZASKUN EGURROLA uleapaindegia, JABIER harategia, JAIME harategia, JASONE uleapaindegia, JESUS MARI harategia, JOSTEN umeentzako arropoa, JOSU jatebxea, JUANITA MUGARTEGI mertzeria, KILIKILI opari dendea, KIPU kirol dendea, KOPILASTER kopistegia, KOPIKOLOR kopistegia, KORTEZUBIKE jolasak, KOTOI mertzeria, L. de CARLOS tabakoak, LAGUN ON albaitaritza, LEIDE jostailu dendea, LEJARRAGA bitxi dendea, LEZAMA tabernea, LOIOLENE fruta dendea, LOREDER pharafarmazia, LOURDES fruta dendea, LUMIERE uleapaindegia, MABE poltsa dendea, MADARIAGA hortz klinika, MARI KARMEN NAVARRO estetika-etxea, MARI SOL fruta dendea, MARI TERE okindegia, MARIA LUISA lurindegia, MARIAN uleapaindegia, MAXI EROSKI, MENDI KIROLAK, MIKEL altzariak, NAIA arropa dendea, NERE KABIA taberna eta jatebxea, OGÑO arrandegia, OJANGUREN elektratresnak, OLAG umeentzako arropoa, OMAETXEBARRIA farmazia, OMAGO dastalekua, OMAGO dietikea, OMAGO kafetegia, PARAPHERNALIA jantzi dendea, PEDRO BILBAO gozotegia, PEPI urdategia, PODIUM garaiakurrak, QUOKKA arropa eta oinetakoak, SAN JUAN Ioteria, SANDALIO harategia TANDEM antenak, TAOS arropa dendea, TECNIRUEDAS GERNIKA, TODO DESDE 100 bazarra, TOTORIKAGUENA jantzi dendea, TRENBIDE arropa dendea, TXANKAN arropa dendea, UGALDE ortopedia, UMEAK umeentzako gutzia, URANGA uleapaindegia, URDAIBAI artekaritza, USKOLA baserri tresnak, VIT-SEC tindategia, ZALLO harategia, ZALLO BARRI jatebxea, ZARRA prentsa-aldizkariak, ZIMELA jatebxea, ZUBIALDE okindegia, ZUGATZA eskaratzeko altzariak, ZURICH aseguroak.

ENPRESAK

ABAUNZA Aholkularia, AITA VILLASANTE Udal Euskaltegia, AKELARRE Ostatua, ALGELEK SL, AMUNATEGUI - ZALABARRIA Abokatuak, APRAIZ Aseguruak, AREZA eraikuntzak, ARRONATEGI Pinturak, ARROYO Banaketak, ARZANEGI Arkitektura, ARZANEGI Y OAR Abokatuak, AUKA BIDAIAK, CALZADA egoitza, CASMARCO SL, COR SL Aholkularia, DISBARAN Banaketak, EXCLUSIVAS GERNIKA, ILLUNZAR, GAKOAK, GERNIKA INMOBILIARIA, GERNIKA KIROLEKUA, GONDRA ABAROA Aseguroak, GORRA Bulkanizatuak, HIRULUGER Inmobiliaria, IKERLEGO Aholkularitzea eta Aseguruak, INTXAUSTI SA Eraikuntzak, IRAZABAL Ardautegia, IZAGIRRE Eraikuntzak SA, JOSE LUIS Kristaldegia, LA CAIXA, LEONCIO FERNANDEZ Abokatua, LUR Inmobiliaria, MACIAS Inmobiliaria, MALLUKIZA Aroztegia, MRW, SAN ISIDRO KOOPERATIBA, SANJO INOX Tailerra, SENDAGAI Osasun Zentroa, SERESNOR, SORKUNDE Finka Administrazioailea, TALLE-RES SANJO tailerra, TTPII-TTAPA, URRUTIA Abokatuak, VITALICIO aseguruak, ZAUNKA produkzioak.

ALKARTEAK

ADES ALKARTEA, AGIRI ALKARTEA, AIURI, ALARGUNEN ALKARTEA, ANDRA MARI KORALA, ARKUPE PILOTA TALDEA, ARRANO KULTUR ALKARTEA, ASINCOOC, AVIFES, BAKE LEKU, BAKEAREN ARBOLA, BARRUTIALDE ANTZERKI TALDEA, BUSTURIALDEAN EUSKARAZ, EHIZTARI, ARRANTZALE ETA TIRATZAILÉEN ALKARTEA, ELAI ALAI DANTZARI TALDEA, ELIZBARRUTIKO KARITAS, EMAKIDE, ETSAIAK MAHAI-TENIS TALDEA, GERNIKAKO EMAKUME ALKARTEA, GAUDEAMUS KORALA, GAZTEAK KULTUR TALDEA, GERNIKA FUTBOL SALA, GERNIKA OFF ROAD, GERNIKA RACING ALKARTEA, GERNIKA SASKI BALOI ALKARTEA, GERNIKA SPORTING FUTBOL TALDEA, GERNIKA-LUMOKO MERKATARI ALKARTUAK, GERNIKAKO ARKUTIROKETA ALKARTEA, GERNIKAKO ARTE ESKOLA, GERNIKAKO BERTSOLARI ESKOLA, GERNIKAKO EKOLOGI LAN TALDEA, GERNIKA GOGORATUZ, GERNIKAKO RUGBY TALDEA, GERNIKATIK MUNDURA, GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA, GOIZALE, GOIZEKO IZARRA GAZTE TALDEA, HILARGI LORE, IDEASUR, IEUP GAZTEEN ALKARTEA, JAI ALAI, KOSNOAGA GAZTE TALDEA, KOSNOAGA IGERIKETA TALDEA, MAKATZ ITURRI TALDEA, MAKAZAGA MUSIKA ALKARTEA, MUSIKEDER, ODOLKIDEAK, OSTARGI ABESBATZA, S.D. GERNIKA KLUBA, SOCIEDAD CICLISTA GERNIKESA, TURDAIBAII, TRIS GERNIKA SAHARAREN ALDE, URDAIBAIO PERRETXIKOZALEAK ALKARTEA, URDAIBAIO RUGBY ESKOLA, URDAIBIKERS MOTORZALEEN ALKARTEA, ZANTZOA EUSKAL KULTUR ALKARTEA, ZINE KLUB KULTUR ALKARTEA

“EUSKERAZ SEGURUAGO” KANPAINEA

Kontseiluak Euskal Herri mailan “Euskaraz Seguruago” kanpaina egin dau eta Gernika-Lumoko Udalak bat egin dau kanpaina horregaz. Kanpaina aseguru-etxeei zuzenduta egon da, eta bezeroak inpliketako helburuagaz egin da; ganera, bezeroek euren aseguru-etxeegaz daukiezan hartu-emonetan euskerearen erabilera areagotzea izan da helburua. Kanpaina dala ta, 2 aseguru-etxetako arduradunei alkarrizketa egin deutsegu:

Aitor Ercilla Urdaibai Artezkaritza

- **Aseguruak euskeraz be eskeintzen dozuez?** Ez, aseguru-etxe desbardinakaz egiten dot behar eta ez dabez euskeraz eskeintzen.

- **Zuek bitartekariak zarie, beraz beste etxe batzuen aseguruak saltzen dozuez. Orain arte aseguruak euskeraz eskeini ahal izateko zein oztopo izan dozue?** Arduradunak hainbat bider eskatu dau, baina aseguru-etxeak luzamendutan ibiltzen dira. Bezeroek eskatu egin behar dabe eta aseguru-etxeek hori ikusi egin behar dabe.

- **Oztopo horreek gainditzeko zeozer egin leike bezeroak? Zer?**

Polizen dokumentuak euskeraz eskatu behar leukiez. Eskari asko egotea izango litxake gakoa... Eskaera asko eta horretarako beharizana ikusi behar dabe aseguru-etxeek.

- **Zer deritxozu Gernika-Lumoko Udalak eta Kontseiluak abiatutako kanpaina honegaz bat egiteari?**

Ondo. Kanpaineak interesa piztuteko balio dau, herritarrak dokumentu honeek euskeraz be eskatu ahal dirala kontzientzietako.

Jose Antonio Gondra Zurich

- **Aseguruak euskeraz be eskeintzen dozuez?** Katalunian egiten dabez polizak, eta katalanez egiten dabez. Guk euskeraz egiteko proposamena egin genduan, baña ez dakigu noiz lortuko dogun.

- **Kanpaina abian jarri aurretik euskeraz aseguru-polizarik eskatzen al eben bezeroek?**

Kasu kontau batzuetan baino ez. Eskaera gehiago behar dira dokumentazinoa euskeraz lortzeko.

- **Badakizu zergatik bezeroek ez daben dokumentazino hori euskeraz eskatzen?**

Polizak gaztelaniaz ulertutea kostau egiten jaku; beraz, euskeraz izateak esfortzu handia eskatzen deutse bezeroei.

- **Zer esango zeuntsie bezero horreei?**

Euskeraz dakien bezeroek euskeraz eskatu behar leukie, baina ez dago eskaera askorik eta eskaera egotea ezinbestekoa da euskeraz jartzeko.


-**Kanpaina honek zuon helburua lortzen lagunduko deutsuela uste dozu?**

Lagundu bai, baina danok parte hartu behar dogu. Aurretik aitatutako moduan, eskaera eginda dago, baina falta dana bezeroen eskaeraz izatea da. Polizen dokumentazinoa euskeraz jarteak aseguru-etxeentzat gastua suposatzen dau eta horretarako bezeroek eskatu egin behar dabe; horrela, beharizana sentitzen badabe, euskeraz be jartea errezagoa izango da.



geure berbie euskeraz

Erredakzinoa eta maketazinoa: ARTEZ Euskara Zerbitzua



Profesionalen arloa euskalduntzen

Hainbat izan dira euskerearen normalizazinoaren aldeko apostua egin eta hitzarmena sinatu dabenak.

Halandabe, aurten, aitagarriena da 3 aseguru-etxek, 4 abogaduk, arkitektura estudio batek eta aholkularitza enpresa batek kanpainan parte hartuko dabela. Honako honeek dira hitzarmena sinatu daben aseguru-etxeak: Apraiz, Ikerlego eta Vitalicio. Abogaduak, barriz, honakoak: Amunategui - Zalabarria, Arzanegui eta Oar, Leoncio Fernandez eta Urrutia. Aurrerantzean kanpainan parte hartuko daben aholkularitza enpresea Ikerlego da. Horrezaz ganera, orain arte ez dogu arkitektura estudiorik izan kanpainan, baina aurton, Arzanegi Arkitekturak hitzarmena sinatu dau. Ganera, Ikerlego aholkularitza enpresek be hartu dauz euskerearen aldeko konpromisoak.



2009 urtea 15. zk.

Argitaratzailea: Gernika-Lumoko Udala

Gernika-Lumo UEUn

Euskerea beste gaietarako gai ez zanean, burugogor batzuek esaten eben baietz, euskereak etxerako ez ezik, eskolarako eta kalerako balio ebala. Hori erakutsi nahian idatzi eban Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae*. Eta harrezkero idatzi diren guztiak!

Orain beste burugogor batzuk dabilz euskereak eskolarako ez ezik, beharrerako be balio dauala esaten. Urte eta ahalegin batzuk pasa dira dagoaneko eta fruitu batzuk be emon dauz egindakoak.

Egindako horretatik ikasi eta eremu barrietara zabaldu nahian dabil, besteak beste, Soziolinguistika Klusterra. UEUren udako ikastaroa bildutako horren barri emoteko erakusleihogokia izan da.

Aurton aukeratutako gaietako bat Gernika-Lumoko Merkataritza Plangintzaren ibilbidea izan da. Ikastaroa Baionan izan zan garagarriaren 7an eta 8an, eta hantxe izan genduzan Bittor Zarrabeitia (Udaleko Euskera Teknikaria) eta Estiñe Astorkia (Artezeko teknikaria)

Azken urteotan Gernika-Lumoko merkataritzan izan diran nondik norakoak zehazten eta herriko merkataritzearen bilakaerearen barri emoten.



Astelehenetako Plazako saltzai- leak kanpaina barruan

Gernika-Lumoko astelehenetako merkatu plazaren garrantzia eta eskualdean daukan eragina kontutan hartuta, merkatuan postua daukienei Geure Berbie Euskeraz kanpaina parte hartzeko aukerea eskeini jake. Lehenengo euskerearen erabilerearen diagnostikoa egin da. Ondoren, Merkatu Plazako saltzaileak ahozko jarduna eta hizkuntza paisaia landuko doguz batik bat: bezeroak aukiezan ahozko hartu-emonak eta mahai gainean eukiten dabean errotuluetan euskerearen erabilerea jorratzea da helburua.

Hori guztia ahalik eta modu eraginkorrenean lantzeko, Euskera Zerbitzuak, Eriak eta Azoka Saileko arduradunak alkarlanean dihardu.

Kultura eta Aisia arloko alkarteak kontraste taldeak

Kultura eta Aisia arloko alkarteen hizkuntza egoera osasuntsua ikusita, kanpainako hartzaile izatekiko eragile aktibo bihurtzeko pausoak ematea proposatuko deutsegu. Parte hartzea bideratzeko urtean zehar kontraste talde bi osotuko doguz, eta lan talde horreen bidez plangintzako sarea hedatzea da helburua. Batetik, alkarteek euren normalizazio prozesuan falta jakezan helburuak modu bateratuan jorratu (alkarte horreen hizkuntza egoera

aztertu ostean, hauxe ondorioztatu dogu: hornitzaileek aukiezan hartu-emonak dira gaztelania hutsez aukiezan bakarrak; bestetik, Udalak euskalgintzeagaz batera abian jarritako ekimenetan parte hartzaile aktibo bihurtu nahi doguz. Izan be, hizkuntza normalizazioan aurrera egiteko ezinbestekoa da merkatari, ostalari, alkarte eta enpresei euskeraz be funtzionatzeko beharrezana sortzea.



Iturria: castragernika.org



Ezaguna da euskereak gaur egun bizi dauan egoera kezagarria. Ez dago esan beharrik Europako hizkuntza zaharrenetako galzorian egon daitekeela behar dauan bultzadea emoten ez bajako, hori dino behintzat Unesco-k hizkuntza gitxituen azkenengo txostenetan.

Hamaika oztopo izan dauz euskereak hizkuntza nagusien munduan bere lekua hartzeko. Eta gauza bera pasetan da orain, internet-a

eta informatikoa oinarri daukazan gizartean gaurkotatua izateko. Esan ohi dabe internetek kultura-aniztasuna mailarik gorenean kokatzen dauala gaur egun, euskereak eta euskal kultureak ez daukie aterpe teknologiko propiorik, hau da, .eus domeinurik.

Interneteko espazio birtualean, euskera beste hizkuntzen mailan kokatzeko .EUS domeinua mundu mailako hizkuntza normalizatorako tresna ezin hobea da. Are gehia-

go, .EUS domeinuak euskera lehen mailako hizkuntza bihurtzen dau Interneten, mundu mailako aitortpena eskeiniko deusalako.

Euskereak beharrezkoak daukazan bideak zabaldu behar ditu XXI. mendean biziraun eta indartzeko, eta horretarako ezinbestekoa da internetaren munduan izena eta izana mantentzea.

Ekinbide horri babes emateko www.puntueus.org webgunean atxikimendua emateko aukerea daukazue.

Euskeraz erosteaz gozatu!

Urtero lez, uztailearen lehenengo asteburuan motibazio kanpaina antolatu eban Gernika-Lumoko Euskera Zerbitzuak. Ekainaren 29tik uztailearen 4ra bitartean Geure Berbie Euskeraz hitzarmena sinatuta daukien saltokietan euskeraz eskatzen eben bezeroei txokolatinak banandu eutsiezan informazio orri batez batera, eta uztailearen 4an amaiera emon jakon merkatu plazako azoka berezian.

“Euskeraz erostea eskubide goxoa” kanpainearen helburu nagusia Gernika-Lumo eta inguruko biztanleak euskerearengana sentsibilizatzea da; herrian 127 saltoki txiki, 51 enpresa (txiki zein ertain) eta 36 alkartek euskeraz behar egiteko egiten daben ahalegina goraitatu gura eban honen bidez. Izan be, horreek danok batetik, herritar guztion hizkuntza eskubideak bete daitezaz gogor egiten dabe behar urte osoan zehar; eta bestetik, saltoki, enpresa zein alkarteak kalidadezko zerbitzuaren aldeko apustu garbia egin dabe. Izan be, euskera abantaila lehiakorra da hizkuntzen aniztasuna aintzat hartzen dauan ekonomia globalizatuan.

Enpresa ertainetako Euskera Planak



Euskera Normalizatzeko planetan murgilduta dabilzan gero eta enpresa gehiago dago Gernika-Lumon. Azkenengo Argi-Ola izan da, aurtan erabagi dau eta planari ekitea, aurrez Gernika Garbiketarak, 2006an; Busturialdeko Irrati Telebistak, 2007an eta Bengozarra-k eta Ekin Autoak-ek, 2008an egin eben moduan.

Aitatutako enpresak oso desbardinak badira be, euskerearen erabilerea euren enpresetan txertatzeko helburuan bategiten dabe, euskereak lan munduan daukan garrantziaz oharturik.

Euskera Plana garatzen daren denporearen arabera, fase desbardinetan dagoz bostak. Horreetatik lehenengo izan zan, Gernika Garbiketarak, jarraipen fasean dago murgilduta, hau da, hasieran zehaztutako helburu gehienak beteta ditu eta orain lehentasunezkoak ez diranakaz eta langileek hartutako helburuak jorratzen dabilz, batez be ahozko erabilerea jorratzen.

Busturialdeko Irrati Telebista, Bengozarra eta Ekin Autoak, ostera, inplementazio fasean dagoz, plana gauzatzeko fasean, alegia. Telebistak hizkuntza kalidadea bermatzea dau

helburu, eta beste biek, kanpo zein barne erabilereari begira jarritako helburuak bete-teko motibazio eta komunikazio ekintzak garatzen dihardue.

Azkenik, Argi-Ola diagnostiko fasean dago, enpresearen euskera egoera zein dan aztertu eta horren arabera plana gauzatzeko prestaketetan.

Erritmo, fase eta ekintza desbardinak erabilita, normalizazioaren bidean urrats sendoak emoten dabilz Gernika-Lumoko enpresa honek. Emaitzak begibistakoak dira.

